

## Jule Goikoetxea

Cambridgeko eta Euskal Herriko Unibertsitateetan egin nituen filosofia, kazetaritza eta zientzia politikoak. Filosofian doktorea naiz eta Londres, Lancaster eta Edinburgoko ikertzaile elkartua 2007-2010 bitarte. Arrez gero ikertzaile posdoktorala izan naiz Cambridgen eta Kanadako Queens Unibertsitatean eta ikerlari akademikoa Oxfordeko eta Pompeu Fabra (Bartzelona) Unibertsitateetan. Gaur egun EHUko Zientzia Politikoetako irakaslea naiz, Oxfordeko Center for International Gender Studieseko ikerketzailea. Cambridge Unibertsitateko Journal of Politics-eko editore elkartua izan nintzen eta gaur egun LISIPE bildumako editorea naiz (Susa), euskal pentsamendu feminista suspertzeko eta argitara emateko helburuarekin. Nere azken lanak Taylor and Francis, Routledge eta Springer argitaletxeek publikatu dituzte Ethnopolitics, Regional and Federal Studies, Nationalities Paper, University of Cambridge Journal of Politics eta Cambridge University United Nations Journal aldizkarietan.

Nere azken liburua, "Demokraziaren pribatizazioa" Peter Lang Oxfordek argitaratu du ingeleraz, Elkarrek (Donostia) euskaraz eta Icaria (Bartzelona) gazteleraz.

Literatura arloan, Tractatus poema liburua argitaratu nuen 2014ean eta urte horretako Lauaxeta Poesia saria irabazi.